



# LEPAHORIA

## *Martes martes*

### TAMAINA

45 - 65 zm

### ITXURA

Lepahoria, ile marroia eta hori laranjatua duen animalia lerdena da.

Gorputz mehea, buztan luzea, buru txikia eta mutur zorrotza du.

Hanka nahiko motzak ditu, oin azpia iletsua delarik. Belarriek ertz argia dute, ondorioz ongi ikusten dira.

## NOLA IDENTIFIKATU?



© Dani KROPIVNIK - CEN Nouvelle-Aquitaine

### NOIZ?

- > Urte osoan zehar
- > Gueuz edo ilunabarrean

### NON?

- > Oihanetan

! Lepazuria, bisoia edo ipurtatsarekin nahas daiteke.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

3-4 urte (10 urte arte)

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Haragijalea da, baina fruituz eta intsektuz ere elikatzen da.

Lepahoria, gaueko animalia lurraldekoa eta bakartia da. Ongi garatutako zentzuak ditu: izan usaimena, ikusmena edo entzumena. Oso arina da zuhaitzetan, baina lurrean ere ongi mugitzen da.

Ugalketa ekain eta abuztu bitartean egiten da. Emeak, batez beste, 3 ume erditzen ditu, 6 hilabete beranduago independenteak izanen direnak.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Lepahoriaren bizi-espazioak 30 eta 150 ha bitarteko eremua estaltzen du.

Horregatik, basoak zatitzeak, deforestazioak eta basogintzak, habitatak eta pasabideak galarazten dizkio. Gainera, errepideko zirkulazioak talka hilgarriak eragiten ditu.

2014az geroztik, lepahoria ez da gehiago espezie kaltegarrietan sailkatua. Hala ere, ehiza heriotz-eragile nagusia da oraindik.

Basoak nahiago izateak oihan bilbeko espezie adierazgarri bihurtzen du.